
HIRU BIDELAPURRAK

Testua eta irudiak: TOMI UNGERER

Itzulpena: KOLDO IZAGIRRE

Kartoi gogorrean egina. 20 x 28 cm. 48 or. 15 €.

ANDERSEN SARIA 1998

IRAKURKETAREN PLAN NAZIONALA (PNL PORTUGAL)

Hiru bidelapurrak (euskara)

ISBN 978-84-8464-621-1. Amets egiteko liburuak.

Los tres bandidos (gaztelania)

ISBN 978-84-96388-56-7. Libros para soñar.

Os tres bandidos (galegoa)

ISBN 978-84-8464-620-4. Tras os montes.

Els tres bandits (katalana)

ISBN 978-84-8464-551-1. Llibres per a somniar.

Os três bandidos (portugesa)

ISBN 978-972-8781-67-5. Livros para sonhar.

Baziren behin kapa beltz eta kapelu beltzeko hiru bidelapur gaizto.

Lehenak iskilu bat zeukan.

Bigarrenak hauspo bat bete piper-hauts.


Hirugarrenak, aizkora gorri handi bat.

Gauez, dena ilun zegoelarik, bide bazterrean jartzen ziren zain...

“Hiru Bidelapurrak” liburu hau, zintzo berritzen duena 1961eko edizioa, haurrentzako literaturaren klasiko bat da, 30etik gora hizkuntzataraz itzulia. Belaunaldi askotako haurrek ezagutu dute pertsonaia bitxi hauen historia. Bidelapur xebreak janzkeran, eta tresna bitxiak dituztenak beren gaiztakeriak egiteko.

Kontakizunean, nabarmentzekoak dira deskripzioa, ekintzen ordena narratiboa eta nolako xalotasunez gidatzen dituen Tomi Ungererrek irakurleak. Irudiak oso lagungarriak dira istorioa ulertzeko: kontraste kromatikoa, eszena bakoitzaren adierazgarritasuna eta bidelapurren itxura misteriozua dira elementu nabarmenenak.

Emozio desberdinak pizten ditu, bai beldurra, baina baita samurtasuna ere: bidelapurrek lapurtzea eta izutzea dute beren biziaren muina, baina neskato zurtz batek bizimodua aldarazi eta ulertaraziko die pilatu dituzten ondasunekin ume behartsu askori lagun diezaieketela.



- **Gaia:** beldurra, eskuzabaltasuna.
- **Adin egokia:** 5 urtetik gora.
- **Nabarmentzeko modukoak:** haur eta gazteentzako literaturaren klasiko bat da; jolasa kapeluen formekin; ongaiaren eta gaizkiaren arteko muga; hurbilketa bat adopzioaren kontzeptura; “Emilio”, “Crictor”, “Adelaida” eta “¿Dónde está mi zapato?” liburuaren egilea (KALANDRAKA).

Tomí Ungerer

(Estrasburgo, 1931)

Bere lehenbiziko marrazkiek (gerla girokoak) gerraren eta faxismoaren kontrako jarrera uzten dute agerian. 1956an New Yorkera joan zen bizitzera eta han umeentzako liburuak idazten hasi zen, arrakasta handikoak. The New Yorker-en, Esquire-n, Life Show-en eta Fortune-n argitaratu zuen. Bere ibilbidearen gailurrean zela, Ungererrek gizarte estatubatuarren azaluseria eta axalekokeria agertu zuen bere lanean. Kanadako etxalde batera aldatu zen, eta 70eko hamarkadan, Irlandara familia guztiarekin. Bere produkzio oparoan (40 urtez), 30.000tik gora lan zenbatzen ahal ditugu, estilo desberdinetan, eta 120tik gora liburu. Hainbat sari irabazi zituen: Irudigileen Elkartearen Urrezko Domina eta Hans Christian Andersen saria 1998an. Marrazkigile lana utzi zuenean, filantropiara emana bizi izan zen, zenbait lan humanitariotan.
<http://www.tomiungerer.com>



www.Kalandraka.com

comunicacion@kalandraka.com

www.  Pamiela.com

soltxate@pamiela.com
